

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### URIBARRI GAUBEAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### **Prozedura irekia, "Asador Gobeia" izenarekin ezagutzen den taberna eta jatetxea errentan emateko eta ustiatzeko kontratua esleitzeko**

Kontzeju irekiak, 2020ko urtarrilaren 30eko bilkuran, kontzeju honena den eta Uribarri Gaubean dagoen "Asador Gobeia" izenarekin ezagutzen den taberna eta jatetxea errentan emateko eta ustiatzeko prozedura irekiaren baldintza administratibo orokorren agiria onetsi zuen.

#### **Baldintza agiriaren laburpena**

1º. Lizitazioaren xedea: Kontratu honen xedea da lehiaketa irekiaren bidez esleitzea "Asador Gobeia" izenarekin ezagutzen den taberna eta jatetxea errentan ematea eta ustiatzea.

2º. Lizitazio oinarria: Lizitazio oinarria 300 eurotan finkatzen da hileko, gehi dagokion BEZa eta urtero KPlaren igoera. Eskaintzak zenbateko horretatik gora aurkeztuko dira.

3º. Kontratuaren iraupena: errenta hiru urterako izango da, eta urteka beste bi urtez luzatu ahal izango da, hau da, guztira bost urterako, kontratua izenpetzen denetik hasita.

4º. Behin-behineko bermea: ez da eskatzen.

5º. Behin betiko bermea: Behin betiko bermea sei mila euro izango da.

6º. Espedientearen azterketa: Gaubeako udal bulegoetan (Jesus Guinea arkitektoaren kalea, 46. Uribarri Gaubea. Telefonoa: 945 353 033), jendea atenditzeko orduetan (09:00-15:00), iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera eskaintzak aurkezteko epea bukatu arte.

7º. Agiriak eskuratzea: Agiriak eskuratu daitezke Gaubeako udal bulegoetan, hots, Uribarri Gaubeako Jesus Guinea arkitektoaren kaleko 46.ean.

8º. Eskaintzak aurkeztea:

a) Aurkezteko lekua: Gaubeako Udalaren Erregistro Orokorrean, Uribarri Gaubeako (01426) Jesus Guinea arkitektoaren kaleko 46an.

b) Epea: hamaika egun natural, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Azken egun hori larunbata edo jaieguna izango balitz, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko litzateke epea.

c) Ordutegia: 09:00etatik 15:00etara, astelehenetik ostiralera.

9º. Eskaintza eredu eta aurkeztu beharreko agiriak: lizitatuzaileek baldintza agirian jasotzen den eskaintza ereduaren arabera aurkeztuko dituzte eskaintzak, eta bertan adierazitako agiriak ere aurkeztuko dituzte.

10º. Eskaintzak irekitzea: "B" gutun azala (Kontratatzeko gaitasuna. Ekonomia, finantza eta teknika kaudimena) kontzejuko aretoan irekiko da, ekitaldi ez publikoan, eskaintzak aurkezteko epea bukatutakoan.

"A" gutun azala (eskaintza ekonomikoa eta agiri teknikoak) kontzejuko aretoan irekiko da, ekitaldi publikoan.

11º. Iragarki gastuak: esleipendunak ordainduko ditu.

Uribarri Gaubea, 2020ko maiatzaren 25a

*Lehendakaria*

*J. BERNARDO LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA*